

Teknologia Transferentzia 2021 programa

Helburua (1. oinarria)	Teknologiaren heldutasuna erraztea da, Ikerketa eta Garapeneko proiektuen bidez, Bizkaiko enpresa-ehunetik teknologia hori praktikan aplikatu ahal izateko.
Erakunde onuradunak (4. oinarria)	<p>Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide den eragile zientifiko-teknologikoentzat, gutxienez lan-zentro bat Bizkaian badute. Kategoria hauetako baten barruan egon behar dute:</p> <p>i. Oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak. ii. Zentro teknologiko multifokalizatuak. iii. Zentro teknologiko sektorialak. iv. Ikerketa kooperatiboko zentroak.</p> <p>50 langile baina gutxiago duen erakunde bakoitzak, eskabide bat aurkeztu ahal izango du. 50 langile edo gehiago duen erakunde bakoitzak, eskabide bi (2) aurkeztu ahal izango ditu, gehienez.</p>
Diruz lagundu daitezkeen egitateak (5. oinarria)	<p>Ikerketa- eta garapen-proiektuak kategoria hauetako batean jarduketak burutzen dituztenak: oinarrizko ikerketa, ikerketa industriala, garapen esperimental eta bideragarritasun-azterlanak.</p> <p>Lehentasuna emango zaie heldutasun teknologikoaren goi-mailetan (TRL) garatu eta enpresentzako teknologia-transferentziako jarduerak (merkataritze-ustiapenerako) jasotzen dituzten proiektuei. Lehentasuna emango zaie, oro bat, RIS3 espezializazio adimentsuaren estrategian adierazitako eremuetan garatzen diren proiektuei; estrategia hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadiko 2030 Planean ezarrita dago</p>
Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak (9. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektua burutzeko lanari dagozkion eskatzailearen barneko langileria-gastuak (ikertzaileak, teknikariak eta laguntza-langileak). ▪ Tresnen eta materialaren kostuak. ▪ Kontratu-ikerketen kostuak, eta lehia beteko baldintzetan kanpoko iturrien lizentzia bidez eskuratu edo lortutako ezagutza eta patenteenak, eta proiektura modu eksklusiboan bideratutako aholkularitze-gastuak eta zerbitzu baliokideenak. ▪ Gastu orokorrak eta bestelako ustiapen-gastu gehigarriak.
Laguntzen zenbatekoa (8. oinarria)	%25raino diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz. %25 aplikatuta aurrekontu-zuzkidura gainditzen bada, orduan, hainbatu egingo da. Gehienezko dirulaguntza proiektu bakoitzean: 200.000 euro.
Arautegia eta emakida prozedura (6. eta 13. oinarriak)	<p>Abuztuaren 24ko 122/2021 Foru Dekretua (2021eko irailaren 1eko 168 zk.dun B.A.O.)</p> <p>Dirulaguntza programa hau Itunaren 107 eta 108. artikulua (DO, L 187, de 26-06-2014) aplikatuta barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Araudipean dago.</p> <p>Dirulaguntzak norgehiagokako araubidearen arabera esleitu dira.</p>
Epeak (10. eta 16. oinarriak)	<p>Proiektuak gauzatzeko epea: eskabidea aurkeztu ondoren hasi beharko dira eta 2023ko ekainaren 30a baino lehen amaitu. .</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea : 2021eko irailaren 13tik urriaren 1eko 13:30etara arte, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eus/sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke..</p>